

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO** **hitza**

Ostirala, 2013ko ekainaren 7a. IX. urtea. 2.607. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Patxi Ruiz Pilotari ohia

«Makina bat negar egin dut, baina orain hobeto nago»

Berrobin bizi den lizarratarrak bizkarreko lesio baten ondorioz utzi
 behar izan du pilota; «oso gustura» bizi da Tolosaldean  4

Greba orokorrak itun soziala bultzatu duela esan du LABek

Lan hitzarmenaren alde elkarretaratzea egin
dute Tolosako Asuncion klinikako langileek **05**



Asuncion klinikako langileak egunero ari dira mobilizatzen. E. MAIZ

Giza Proba Txapelketan lehiatuko dira Berrobi, Zizurkil eta Aiztondo

Lehen kanporaketa izango dute etzi, Aian, Aiztondok, Zizurkilek eta Urretxuk; Berrobik ekainaren 29an ekingo dio txapelketari **07**

Birziklapen Birak izan duen erantzunarekin «oso pozik» agertu dira

8.500 herritarrengana
iritsita Tolosaldeko
Mankomunitateak ei lerro
sei lerro sei lerro sei lerro
sei lerro sei lerro **02**

[illegible]

BENETAKO 20 Mb
HILEAN 33,8€
 Soilik ordaintzuta lehentasun
LURRA BAZKAI

eta

Eta mugikorrean edo TBan alta ematen baduzu

OPORRAK EUSKALTELEKIN

Aurten, oporretara eramango zaitu Euskaltelekin. **Gure Trio eskaintza** (Mugikorrearekin edo TBekin) kontratatuz gero, **bost gauetako egonaldia****** (Gabo de Gatan edo Peniscotan) oporluko diruzuzko bilaketa ibil, lehentizko 250 Eurotaz baliatuz baina opor hau.

logikalline
 San Francisco, 19

euskaltelekin
 Benetako ofiziala

Birziklatzeko garrantzia 8.500 herritarrei helarazita amaitu da Birziklapen Bira

Mankomunitateak balantze «positibo» egin du, eta birak bizirik jarraitzeko 25.000 gida banatuko ditu etxeetan

Mikel Iraola Tolosa

Maiatzaren 6an Anoetan hasi, eta harrez geroztik 28 herri zeharkatu ondoren, asteazkenean eman zitzaion amaiera Larraulen Birziklapen Birari. Guztira, 8.500 herritar pasa dira herriz-herri antolatuta diren gune eta hitzaldi-tailerretatik, eta Tolosaldeko Mankomunitatea oso pozik agertu da izandako erantzunarekin.

Amaitu Azkue, Mankomunitateko ordezkariek, herritarrek «birziklatzeko beharrekiko geroz eta kontzientziatuago» daudela nabarmendu du: «Herritarren zalan-tzak argitzen saiatu gara, eta esker hitzak jaso ditugu. Geroz eta kontzienteago dira birziklatzearen garrantziaz eta kontzientziazio kanpaina honekin argi eta garbi ikusi dugu Tolosaldea garbi eta jasangarriago bat egingo dugula guztion artean».

Bailarako 28 herrietan ezarri diren gunez gain, 20 ikastetxeetatik ere pasa da Birziklapen Bira. Bisita horietan, 1.600 ikasle hartu dute parte, eta horrekin ere gus-tura azaldu da Azkue: «Birzikla-



Eneko Maior eta Amaia Azkue atzoko prentsaurrekoan. M. IRAOLA

tzea hezkuntzaren parte dela ikusi dugu ikastetxeetan, eta eskualdearen etorkizunarentzat ere balore hori beharrezkoa da».

Lanean jarraituko dute

Birziklapen Bira amaitu da, baina Eneko Maior mankomunitateko kidearen esanetan, «geroz eta jende gehiagorengana iristeko» lanean jarraituko dute «Tolosaldea zero zabor izateko helburuarekin, ahalik eta zabor gutxiyen sortu, murriztu, berrerabili eta ahal den guztia gaika sailkatuz».

Lehen pausoa, datozen egune-tan emango dute, izan ere, hondakinak modu egokian sailkatzeko 25.000 gida eta eskuorri banatuko dituzte etxetxe etxe «birak etxeetan bizirik iraun dezan».

Izan ere, Azkueren ustetan, «murriztea, berrerabiltzea eta egoki sailkatzea etxe bakoitzean egin beharreko ekarpen txikiak

↓ Datuak

BIRZIKLAPEN BIRA

- **28 herri** zeharkatu ditu birak, Tolosaldeko herri guztiak.
- **8.500 herritar** pasa dira birak jarraituko gune eta tailerretatik.
- **7.000 jogurt** banatu dituzte landarea landatzeko haziarekin eta ongarriarekin.
- **20 ikastetxe** hartu dute parte bira honetan.
- **1.600 ikasle** jaso dituzte 20 ikastetxe horietatik.
- **25.000 gida** eta eskuorri banatuko dituzte etxetxe etxe.

dira. Ziur gaude horrela jarraituz gero, eta guztion ekarpenarekin, eskualdeko birziklapen datuak irauliko ditugula».

● tolosaldean@hitza.info

↓ Iragarki laburrak

LAN BILA

Exteko lanetarako. Goizetan, etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko. Autoa badauka. Deitu 943 69 68 82 edo 606 52 19 92 telefono zenbakietara.

LAN ESKAINTZA

Arraindegia. Neska euskalduna behar da arraindegitean lan egiteko. Interesatuak, deitu 607 594 716 telefono zenbakira.

SALGAI

Txakurkumeak. Hiru txakurkume salgai. Artzai-txakur arrazakoak dira, mestizoak. 60 euro bakoitza. Interesatuak 638 943 226 telefono zenbakira deitu beharko dute.

Quad. Suzuki LTZ 400 markako quad-a salgai. 3.500 kilometro ditu, guztiz ekipatua dago eta berria bezala dago. Interesatuak, deitu 600 752 537 telefono zenbakira.

Gutuna

Atez atekoaren munstroa Villabonan eta Zizurkilen

Ez dut nik dudan jarriko ostiralean manifestaziora gerturatu zirenetako batzuk birziklatzen ez dutenik, baina hauen jarrera igan-deko mezaren ondoren limosna eman eta etxera lasai joaten denaren modukoa iruditzen zait, edota urtean behin zuhaitz bat landatuta kontzientzia garbitzen duenaren parekoa.

Beste batzuk aldiz, gehiengo handi batek, ez du sekula birziklatu eta gainera, ez da honetako duen garrantziaz ohartzen. Nola ez, berak sortutako hondakinak gaika bereiztera ukatzen da, honetaz izugarriko lanak ematen dizkiola arrazoituz. Hauetako batzuk, zintzoenak, benetan beldurturik eta arduraturik daude gaizki egingo dutela pentsatuz eta horregatik, atez atekoaren munstroa ate azpitik sartuko zaienaren izua dute.

Gaikako bilketaren aurkariaren arrazoiak batzuk apokaliptikoak izatera iritsi dira, beren hitzak kirtenkeriaz josita baitaude. Guzti hori, Amantegi delako bati esker izan da, izan ere gezurretan oinarritutako kanpaina baten buru baita. Asko eta gaizki hitz egin du gaiari buruz, baina herritarren aurrean aurrez aurreko eztabaida bat onartzeko ausardiarik izan gabe.

Nire belarrietara iritsi denez EAJko marketing arduradunek kontratatua izan da, atez atekoaren aitzakia erabiliz herria Bil-duren aurka jartzeko. Baina aurrez aipatutako moduan Amantegi ez da ausartzen gaiak merezi duen seriotasunez eztabaidatzera, nahiago du bakar bakarrik bere diskurtsoa entzun nahi duenarengana zuzendu, galdera konprometituak saihestuz. Lan honetan laguntzaile ugari izan ditu, komunikabideen gehiengoak: EITB, Diario Vasco, Noticias de Guipuzkoa...

Ez dut denbora galduko Amantegiri zuzenean ezer esaten. Bera eta manipulazio lan honetan lagun dituenak oso ondo dakite zertan dabilzan: gogo oneko herritarrek engainatuz eta hauek

inoztzat hartuz Buru Batzarreko postua lortzeko bidea jorratzen.

Nire hitzak atez ateko munstroak irentsiko dituen beldurrez dauden herritarrei zuzenduak daude. Ez arduratzeko esan nahi diet, atez atekoa sistema eroso eta justua dela eta erraza dela hau nola egiten den ikastea. Hau horrela denik sinisten ez baduzu ziur nago bizilagunen bat izango duzula esperientzia honetan lehenengo pausak ematen lagunduko dizuna.

Gainera, hau eginaz benetako munstroa deusezten lagunduko duzu, Amantegi eta EAJk aipatu nahi ez dizuten hura: errauste planta. Kutsadura murrizteko garaia da eta ez gehitzeko. Hel-buru nagusia birziklapen tasa altuena lortzea izan behar du. Kutsadura gutxiago eta osasun gehiago. 5. edukiontzia (orain-goa lauek ez duten zer ote du miraria gerta dadin?) ez du errauste plantaren beharra deuseztatzen.

Ondorengoa da benetako eztabaida: Errauste planta bai ala ez. Hau ezkutatu nahian dabilta. Nik oso garbi dut: errauste plantarik ez!!! Etxean hondakinak ondo bereizteko esfortzu txiki bat baino ez da behar. Badator atez atekoa Zizurkila, animo! Guztion artean Zubietan eta Usurbilgo herritarrek lasaia egon daitezen lagunduko dugu. Eta beraiekin, baita billabonatar eta zizurkildarrak ere.

Utz dezagun behingoz erre-lak ez diren munstroen aurka borrokatzeaz. Eta ardura gaitzen benetakoek: pentsioetan datozen murrizketak, BEZaren igoera, koordainketa, soldata murrizketak, irakaskuntza publikoaren gainbehera, pribatizazioak, ustelkeria politikoa, eta batez ere, langabezia. Horretaz ari garela, galdetu al diozue inoiz zuen buruei zenbat lan postu sor ditzakeen atez atekoak Euskal Herri guztian?

■ **Arantxa Zabala Artoia.**

www.inmosalbide.com



Aia. Baserrria berritu berria. 125m2-ko bi solairu ditu. 25 m2-ko terraza. Terrenoa, 110.000m2. 50.000.000 pezeta.

Aizarnazabal. 3 logelako etxebizitza. Oso prezio onean. 24.500.000 pezeta.

Bergara. Askarruntz auzoa. Guztiz berritua: bi logela, diseinuzko sukialdea, berokuntza sistema gasarekin. 150.000euro!.

Donostia. Amara-Amezketakalea 3 logela, 2 bainugela eta terraza. Igogailua eta gasa. Zazpigarren solairua. Izkina. Ezin hobea. 59.898.960 pezeta.

Iraeta. Etxe berria. 2 logela, terraza eta lorategia. Garaje handia. Komunitateko igerilekua. Prezio berria: 35.000.000 pezeta.

Zarautz. Azken Portu. 92m2 ditu. 4 logela, terraza, trastelekua eta igogailua. Erreforma behar du. Prezio berria: 54.000.000 pezeta.

Zarautz. SALBIDE. 3 logela, 2 bainugela, terraza, trastelekua eta garaje itxia. Oso egoera onean. 75.000.000 pezeta.

Zarautz. Ixasamendi. 3 logela eta 2 bainugela. Erreforma behar du. 41.000.000 pezeta.

Bizkaia kalea, 6 · 20800 Zarautz · Tel.: 943-01 07 00 · Mug.: 665-71 85 96



**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA**

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

↓ Iritzia

Iker Ibarluzea
Aurten udarik
ba ote?

Hasta el 40 de mayo, no te quites el sayo. Aurten betebeteen asmatu du esaera zahar honek. Hau ere gehituko nioke: *Hasta San Fermín, con bufanda y calcetín*. Negua joan ote den oraindik ere zalantzak ditugun honetan, azken hilabete hauetako eguraldiaz nazkatuta gauden honetan, askok eta askok egin izango diote galdera bere buruari: aurten, erritmo honetan, udarik ba ote?

Gure Euskal Herri heze honen klimak duen berezitasuna horixe da ordea: eguraldi mundialak, 20-25 gradu, zero urdin eta haize goxokoak, esku batez kontatzeko adina egiten dituela. Aurtengo maiatza euritsu joan da, urtea bezalaxe. Berastegin ia 200 litro ur pilatu dira hilabete honetan. Hau oso normaltzat jo behar da gure kliman, batez ere urte sasoi honetan, non euria erraz eta erruz, hila-bete hauetan egiten duen. Normala ez dena da, orain dela bi urtekoa adibidez, non 50 litrotik behera geratu ziren balore horiek. Asko dira urte batean euri gutxi egite soilagatik, klima aldatzen doala diotenak. Lurrean, klima beti doa aldatzen, gehiago edo gutxiago; azken urteetan gehiago gizakiak lagunduta; beraz, urte bat lehor badoa ez du zertan klima aldatetaren prozesu izan. Ez gaitzen beraz segituan aztoratu urtea euritsu edo lehor doalako.

Baina hasierako gaira bueltatuz, aurten udaberririk ez dugu izan. Nire ustez, zuzenean goaz negutik udararantz, zeren udaberriko eguraldiak bi edo hiru egun izan dira. Uda noiz etorriko ote da ordea? Zaila da esatea uda nolakoa izango den. Pello Zabalak tenporak erabiltzen ditu, gutxi gorabehera iragarpen bat egiteko. Egia da nik tenporak jarraitu izan ditudanetan, %85 batean edo asmatu dutela, baina ni ez naiz horien zalea. Nik egunean eguneko segitza nahiago dut eta hilabete bat edo bi hilabete iragarpen horiek baztertu. Oso zaila da egun batzuetara zer eguraldi egingo duen jakitea zeren probabilitateak asmatzeko asko jaisten dira.

Udari begira, badut nik esperantza eguraldi on eta beroak izango ditugula, zeren klima honetan hilabete gehiegitan eguraldi euritsu badugu, normalean hurrengoetan eguzki eta berotik gehiago izaten da. Ezin da ziurtatu ala izango denik, baina esperantza ez da inoiz galdu behar. Beraz, pazientzia izan eta zain egotea besterik ez zaigu geratzen, ea eguzkia behingoz indarrez sartu eta eguraldiak saneatzera egiten duen.

Azken lau urteetako marka jarri du Berastegik maiatzean 302 l/m² bilduz

Maiatza udaberri kutsu gabeko hilabetea izan da; Bidanian, lau egunetan bakarrik ez du egin euria

Asier Imaz

Sare sozialetan hainbat txantxa ibili dira bolo-bolo amaitu berri den maiatzean: *Eguzkia askatu!*, edo *Euskal Ekia Askatu!* bezalako mezuak hara eta hona zabaldu dira. Maiatza benetan iluna izan da, udaberririk gabeko baina euri ugari hilabetea. Berastegin, adibidez, 302,2 litro euri bildu dituzte metro karratuko; Ibiur urtegi-ko neurketa datuetan, %100etik pasa dira dezimak, eta Bidanian, lau egunetan bakarrik neurtu dute 0,0 l/m² klimatologoek.

Udaberri berezi honetako egurratsak eragin zuzena du besteak beste lehen sektorean, eta inguruko landa eremuetan belardiak eguzkiaren zain daude. Baserritarak belarra moztu behararren eta ezinaren artean dabilta, elkarraren artean honelako kontuak

kontatuz: «Belarra ontzeko ere ez dago tarterik; ez dut hori beste inoiz ezagutu, maiatza garaian».

Inoizko istoriak alde batetara utzi, eta azken egun hauetan eguzkia ikusteko aukera izan dugu. Nekazariak korrika eta presaka irten dira baratzetara, landareak landatzera. Tolosako azokan produktu batzuk falta direla nabaritu duenik izan da, eta epe ertainera ondorioak ageriagoan geldituko dira.

Udaberririk gabeko urtea izan daiteke aurtengoa. Pello Zabala eguraldi gizonak barnealdean eguzkia ikusiko dugula esan du udan, kostaldean argazki hori ateratzea gehiago kostako den arren. Frantziatik iragarpen ilunagoak ere iritsi dira, bi mende atzera egin eta geroztik izan den udarik kaxkarrena izango dela iragartzeko. Badira Iker Ibarluzea ibartar gaztearen moduan, klimatologia maite, eta egunetik egunera bizitzea nahiago dutenak.

Zerbait argi badago, hori zera da: igogailuan eguraldiaz hitz egiteko inoiz baino arrazoi gehiago daudela aurtengoa.

↓ Prezipitazioa l/m²

2010EKO MAIATZA

■ Alegia	119,8 l/m ²
■ Berastegi	197,6 l/m ²
■ Bidania	231,5 l/m ²

2011KO MAIATZA

■ Alegia	68,5 l/m ²
■ Berastegi	82,2 l/m ²
■ Bidania	76 l/m ²

2012KO MAIATZA

■ Alegia	103,3 l/m ²
■ Berastegi	131,8 l/m ²
■ Bidania	91,8 l/m ²

2013KO MAIATZA

■ Alegia	158,1 l/m ²
■ Berastegi	302,2 l/m ²
■ Bidania	249,7 l/m ²



Maiatzean, leihotik begira babesean egoteko moduko giroa egin du. HITZA

Begoña Aristi • Nekazaria

«Euriarekin batera, temperaturaren faktorea ere kontuan hartu behar da»

A. Imaz Aldaba Txiki

Zerura begiratzeari utzi eta azken egun hauetan landareak sartu eta sartu dabil Begoña Aristi baratzean, baina berak onartzen duen bezala, presaka eta urtaroren erritmoarekin gozatu gabe.

Zer moduz joan da maiatza zuen baserrian?

Gaizki. Ez bakarrik baratzean ibiltzen garenontzat, nik uste arlo guztietan joan dela gaizki, baita belarrak egiterako orduan ere. Kanpoan lanik gehien egiten den urtaroa da, eta horrenbeste euriarekin belazetara ezin sarturik ibili gara; ezin izan dugu kanpoko lanik egin.

Zeintzuk dira horren ondorioak?

Aurrera begira atzerapen izugarria suposatzen du horrek. Belarrak galdu egiten dira, adibidez, eta negura begirako uzta guztia hor biltzen da. Baratzean, aldiz, ez daukagu ezer sartzeko, eta ondorioz, azokan saltzeko ere justua, dena atzeratzen baitzaizu. Lapurretan ibiltzen gara, eguzki pixka baten lapurretan, korrika

zeozer sartzeko. Lurrak, ordea, gozatu gabe daude, zakar-zakar eginga; baina hori da dagoena.

Aurtengoan pareko oroitzenekin ba al daukazu?

Horrelako desesperazio sentsaziorik ez daukat gogoan. Eguzki guztia zerura, leihotik edo eguraldi iragarpeni begira pasatzen duzu, ea atsedenaldi bat noiz emango duen esperantzan. Tartaren bat bada, zalapartan joaten zara landarea sartzera. Iragan astean, egun batzuk onak egingo zituela esan zuten, eta batari eta besteari deika hasten zara, landareak ekartzeko eta esanaz: korrika.

Euriak bakarrik ekarri al dizue kaltea?

Udaberria beti izan ohi da goraberatsua. Euria beti egin izan du. Aurten, ordea, alde batetik udaberriko egun sanorik ez du egin, eta bestalde, hotzaren faktorea gehitu behar zaio. Euria egiteaz gain, hotza egin du. Negutegiak dituztenek ere esan dute hori, hain zuzen ere, negutegian egon arren, landarea ez dela mugitu



A. IMAZ

hotz horrengatik. Temperatura oso baxuak eduki ditugu.

Larunbateroko Tolosako azokan, nabaritu al dira ondorioak?

Ilarrak adibidez oso gutxi egon dira. Produkturen bat falta dela nabari da, baina hori baino gehiago, hemendik aurrerakoak sortzen du kezka. Udarara begira, landareak landaturik egon behar zuen iadanik, fundamentuarekin, baina aukerarik ez denez egon, udaberriko gutxi hori bukatzean ikusi egin beharko da zer

datorren. Azken egun hauek probestu ditugu landarea sartzeko: presaka.

Zein landare landatu dituzue?

Tomatea, gindilla, txorizeroa, pepino, azelgak, letxugak... ahal izan dudana guztia. Lurra, ordea, oso zakarra dago oraindik, eta berriro ere euria eta temperatura baxuak datoztenez, ea zer etortzen den. Gozatu gabe ari gara, ez urtarok agintzen duen erritmo horretan.



Ibarako Udala

BARAKA

Ibarako Udalak lan polita bat sortuko du lehiaketa-oposizio bidez, Udaleko Obra Lan-taldean sortzen diren beharrei erantzuteko.

- Eskeraur aurkezteko epea: Ekainaren 20a arte (hau barne).
- Eskeraur aurkezteko lekua: Ibarako Udaletxeko Erregistro Bulegoan. Oinarriak eta eskaera ereduak Ibarako Udaletxeko Erregistro Bulegoan eta Udaleko web orrian (www.ibarakoudala.net) eskura daitezke, 2013ko ekainaren 10etik aurrera.



A. BELAUNZARAN

Patxi Ruiz Pilotari ohia

Urte hasieran, bizkarreko lesioaren ondorioz, pilotari agur esan beharrean suertatu zen Berrobin bizi den pilotari lizarreatarra; «gustura» bizi da Tolosaldean.

«Partidak telebistan ikusten ditut eta ikaragarritzko inbidia pasatzen dut»

Agurtzane Belaunzaran Berrobi

Urte hasieran zintzilikatu zituen galtza zuriak Patxi Ruizek (Lizarra, 1980). Bizkarreko lesioaren ondorioz sasoirik onenean pilotari agur esan zion. Bizitzaren joan etorriek eskualdera ekarri dute eta «Berrobin oso integratua» da goela dio. Pilotari zenekoaz, oraingoaz eta geroakoaz hitz egin dio HITZARI.

Urtarrilean ofizialki esan zenien bertirako agur pilotari «honaino iritsi naiz, bukatu da» izan ziren zure hitzak. Bost hilabete pasa dira, nola zaude orain?

Erabakia hartu aurreko momentu haiek oso gogorak izan ziren. Nire bizitza erabat baldintzatuko zuen erabakia izango baitzen; pilotan jarraitu edo betirako utzi. Osasunak ez zidan lagundu eta galtza zuriak betirako zintzilikatu

tu nituen. Hasiera hartan makina bat negar egin nuen, baina orain hobeto nago. Bizitzak aurrera jarraitzen du, semea eta familia ditut eta aurrera egin beharra dago.

Ekuntza egin zizutenean medikuak kantxara itzuliko zirela agindu zizun.

Berme guztia eman zidan pilotan jarraitzeko, erreuperatzeko 6 edo 7 hilabete beharko nituela esanez. Baina bosgarren hilabetean dena okertu zen, ikaragarritzko minak nituen eta nik ez nuen nire burua pilotalekuan ikusten. Urtebete egon nintzen erreuperatu nahian baina ezinezkoa izan da.

Minik ba al duzu orain?

Egunak ditut, batzuetan minzuria edukitzen dut eta negu honek zer esanik ez. Oraindik ez nago %100.

Horrek zeresan nahi du, nekez hartuko duzula berriro pilota eskuetan?

Ez dut uste berriro pilotan hasiko naizenik, pilotan jokatzeko posturak ez diote nire bizkarrari onik egiten eta. Oraindik ez naiz frontoira pilota partida bat ikustera joan, telebistan ikusten ditut eta ikaragarritzko pena sentitzen dut, inbidia pasatzen dudala onartu beharra daukat.

Zure bizitza pilotari loturik egonda...

Txikitatik pilotan bakarrik egin dut, ikasi ere gutxi egin nuen eta pilotan bakarrik nekien egiten. 8 urte nituenen hasi nintzen pilotan Lizarra San Miguel pilota elkartearen, orduan nire aitak ere pilotan jokatzeko zuten. 10 urterekin Nafarroako Txapelketa irabazi nuen. Pilotaz ulertzen dutenek dohai handiko pilotaria nintzela zioten eta horrela egin nuen salto profesionalek 18 urterekin.

↓ Di-da batean

■ **Tolosaldeko txoko bat.**

Belabieta. Uso postuak ikusi eta Donostia ikustea zoragarri da.

■ **Lizarra edo Ibarako piperrak.**

Berrobikoak nahiago.

■ **Pilotari bat.**

Zabaleta.

■ **Kirol bat.**

Txirrindularitza.

■ **Afizio bat.**

Ehiza.

■ **Sagardoa edo Nafarroako**

ardoa.

Errioxako ardoa.

■ **Palmaresean sari bikainak dituzu gainera.**

1997an, Mexikon Munduko Txapelketa irabazi nuen. Han partidak erraz irabazi nituen, zailena

hemen aukeratua izatea da. 2003an, berriz, 23 urterekin Buruz Buruko irabazi nuen, pilotari batek irabaz dezakeen txapelik matuena.

Galtza zuriekin berriro ikusiko ez bazaitugu, maillotarekin ikusten zaitugu orain!

Txirrinduan ibiltzen naiz orain, Betelu, Azpiroz eta Leitzaldeko itzulia egiten dut. Kirola egiten ohitua nago eta sasoi mantendu beharra dago.

Izango duzu oraindik bete gabeko ametsen bat...

Pilotari nintzenean kirol asko ezin nituen praktikatuko eskia, zaldi gainean ibiltzea... Baina betidanik eduki dudana ilusioa rallyetan parte hartzea da, abiadura maite dut.

Zein da zure egunerokoa orain?

Goizetan semea zaintzen dut eta arratsalde Masaja eta Bizkarreko Teknikoa ikastaroa ikasten ditut Iruñean, bi urteko ikastaroa da eta azken urtean nago orain.

Eta zure etorkizuna?

Krisi ekonomikoa dela eta gizarte ez dago egoerarik onenean baina ikasten ari naizena egin nahi nuke, hasi eta frogatu behintzat.

Lizarran jaio zinen eta bizitzaren joan etorriek Tolosaldera ekarri zaituzte. Zure amona ere hemengo omen zen, sustraietara itzuli zara.

Berrobin bizi naiz eta oso gustura gainera, elkarre gastronomikoan bazkide naiz, herriko lagunekin ehizara joaten naiz, oso integratua nago. Amona ere Tolosaldekoa zen bai, jaiotza dokumentuetan Berastegi eta Berrobi azaltzen zaizkio. Amonak oraindik badaki euskaraz!

Eta zu zer moduz moldatzen zara euskararekin?

Hiru urte egin ditut euskaltegia, baina oso gogorra egiten zait. Gainera hemen oso azkar hitz egiten duzue eta lotsa ere ematen dit. Anje semea izango dut agian iraklerik onena.

Herrian badituzu pilotari gazteak, pasa den urteko Herriarte Txapelketan punta puntan izan ziren. Zer esaten diezu?

Zaintzeko esaten diet adin kritikoa daudelako. Bizitza diziplinatua eman behar dutela, baina pilota gustuko badute entrenatzeko gozatu ere egingo dutelako.

oibarraldea@hitza.info



Saldías Miguel

ASEGURUETAKO ARTEKARITZA

www.saldias-miguel.com

% 60 arteko aurrezkia

- Autoak
- Motoak
- Furgonetak

- Kamioiak
- Etxebizitzak
- Komertzioak

- Komunitateak
- Istripuak
- E.P.S.V

- Osasuna
- Inbertsioak
- etb.

Zazpiterrieta, 14 • 20200 **Beasain** • Tel.: 943 085 600
San Juan kalea, 6 • 20270 **ANOETA** • Tel.: 943 698 004
Nafarroa Etorbidea, 12 behe • 20400 **Tolosa**
Tel. 943 651 189



Greba orokorrak itun soziala indartzeko aukera sortu duela diote

LAB sindikatuak maiatzaren 30eko mobilizazioaren balantzea egin du; Asuncion Klinikako langileek elkarretaratzea egin dute



Ezkerretik eskuinera, Jon Loinaz, Olhana Lopetegui eta Haizea Mendiola LABeko ordezkariak. HITZA

Asier Imaz

Maiatzaren 30eko greba orokorraren balantzea egin du Tolosaldeko LAB sindikatuak. Lehenik eta behin, mobilizazioarekin bat egin zuten langileei eskerrak eman dizkie, eta bestetik, gogor salatu dute Tolosaldeko hainbat enpresen jarrera: «Inguruko beste enprekin alderatuta lan baldintza hoberenetan dauden zenbait enpresako langileek ez dute bat egin grebarekin. Murrizketak, lan baldintzen okertzea, prekarietatea... nagusi den momentu honetan elkartasun falta izugarria erakutsi dute eta erabat salagarria dela uste dugu».

Greba horretan kapitalarekin edo langileriarekin lerrokatzea erabaki behar zela azaldu dute, eta hainbat langilek «kapitalarekin bat egitea» erabaki zutela esan dute LABetik, «krisiaren gestioan harturiko erabakiei babesa ematea erabaki dute».

Salbuespenak albuespen, LAB sindikatuaren esanetan, greba «oso orokorra» izan da: «Benetan txalagarria jendearen erantzuna, eta mobilizazioek izan duten indarra». Horri esker, itun sozialak dimentsio handia hartzeko aukerak lortu dituela gaineratu dute sindikatu abertzaleak. Itun sozialean buru belarri lanean hasteko konpromisoa hartu dute LABetik, greba deitu duten eragileekin batera: «Gure ekonomia eta gure baliabideak euskal herritarren zerbitzuan jartzeko, eta bertan bizi garen pertsona guztiok bizi baldintza duinak eskuratu ahal izateko».

Asuncioneko langileak, kalean
Tolosako Asuncion Klinikako langileek elkarretaratzea egin zuten atzo goizean, enpresa komiteak deituta, eta Asuncioneko nagusiaren jarrera salatzeko: «Lan hitzarmen berri bat sinatzeari uko egin dio, eta 2010etik hona soldatak izozturik ditugu. Horrez gain, soldata horietan murrizketak aplikatu nahi ditu, baztertzendugun lan erreforman oinarrituta. Aitzakia bezala, Eusko Jaurlaritzarekin duen hitzarmenean murrizketak aurreikusten dituela esan du». Hitza ez dutela bete ere salatu zuten.

Kutxabank Maileguak

uda

honetan

ondo pasa

auto berrian

bidaiatzean

Egizu gogoko duzuna

Kutxabank Maileguak

Autorako mailegua

Operralditza OPARI

Astelburuko txangoa OPARI 2 laguntziaz eta 40 Eko diru-ortela, nahi duzunerako.

Aukeratu orain solako txangoa!

OPARI 40€

OPARI 40€

OPARI 40€

Posta elektronikoa

QR code

Pilota partida erabakigarriak jokatu dituzte asteburuan zehar, eskualdean

Herriarteko Txapelketa, Berria Txapelketa, Ogi Berri Txapelketa eta Udaberria Sariko nesken finala, jokoan

Imanol Garcia Landa

Pilotazaleek goi mailako partidak ikusteko aukera izango dute asteburuan, eta horietako asko Tolosaldeko frontoietan jokatu dira. Herriarteko Pilota Txapelketan, eskuzko modalitatean, eskualdeko hiru herrik egin dute aurrera, eta asteburu honetan final-laurdenetako joaneko neurketak izango dira. Tolosak atzo arratsaldean jokatu zuen, Beoti-barren, Hernaniren aurka.

Bidegoian eta Zizurkil dira lehiari jarraitzen duten beste bi herriak. Bidegoianek Astigarra-garen aurka jokatu du, Astigarra-gan, gaur, 19:30ean. Zizurkilek joanekoa etxean jokatu du, gaur eta 19:30ean hasita, Intxaur pilotalekuan. Aurkaria Oiarzun izango da.

Bestalde, Herriarteko Zesta Punta Txapelketaren beste jardunaldi bat jokatu du Tolosak. Mutrikuren kontra jokatu du, 20:00etan hasita, aurkariaren pilotalekuan.

Ogi Berri Txapelketa

Migel Soroaren oroimenezko I. Ogi Berri Pilota Txapelketa finalerdietara iritsi da. Larunbatean



Ogi Berri Txapelketaren finalerdien lehen jardunaldia aurkeztu dute Migel Soroaren jaioterrian, Elduainen. IGL

jokatu dira hiru partida, 17:00etan hasita, Tolosako Beoti-bar pilotalekuan. Finalerdien lehen jardunaldiaren berri emateko aurkezpena egin zuten antolatzaileek, eta horretarako Migel Soroaren jaioterria, Elduain, aukeratu zuten. Bertako pilotalekuan elkartu ziren larunbatean jokatu duten hainbat pilotari. Hauekin batera, Izaskun Kerexeta Elduaingo alkatea eta Antton Soroa, Migel Soroaren semea, izan ziren.

Hiru partidetatik bi kadete mailakoak izango dira. Batetik, Laso-Oskoz eta Bakaikoa-Urdapi-

lleta ariko dira elkarren aurka. Bestetik, Peña-Martija eta Errandonea-Mendia. Hirugarren partida elite mailako izango da: Jaka-Arratibel Arrieta-Gorrotxategiren aurka. Hain justu, aurkezpenen bildu zirenak Erik Jaka lizartzarra zoriondu zuten, hilaren 24ean profesionalean debutatu egingo baitu.

Berrian, lehen finalerdia

X. Berria Txapelketaren finalerdia ere iritsi dira, eta neurketa bakoitzean Tolosaldeko elkarte banak parte hartuko du. Lehen finalerdia asteburu honetan izan-

go da. Aurrera Saiatz elkartek Markinaren aurka jokatu du, igandean, 17:00etan, Tolosako Beoti-bar frontoian.

Beste finalerdia Amezketako Zazpi Iturri elkartek jokatu du, Uharteren aurka, Zestoan. Baina neurketa hori hurrengo asteburuan jokatu dute.

Gomazko paleta nesken finala

Gaur, Alegian, 19:00etan hasiko den jaialdian, hirugarren partidari, Udaberria Sariko gomazko paleta neska jubenilen finala jokatu dute Intxurre 2 eta Intxurre 1 taldeek.

Gas butano instalazioaren baliorik gabeko azterketak ari dira eskaintzen

I. Garcia Landa

Tolosaldeko Kontsumitzailearen Informaziorako Udal Bulegotik jakinarazi dute Instalaciones Eurogas S.L. enpresa gas butano instalazioaren azterketa eskaintzen ari dela, horretarako baimenik izan gabe. Azterketa edota ikuskatzea enpresa banatzaileak bakarrik egin dezakeela azaldu dute kontsumitzailearen bulegotik. Hala, Repsol Butano enpresak jakinarazi duenez, Tolosaldean horretarako baimena Gas Garin S.A. enpresak du.

Instalaciones Eurogas enpresak dagoeneko egin ditu zenbait ikuskatze eta horientatik 64,38 euro kobratu ditu. Ikuskatze horiek ez dutela balio ofizialik esan dute kontsumo bulegotik. Bestalde, enpresa horrek mantenurako kontratua eskaintzen ari dela azaldu dute. Kontsumitzaileak engainatzen ari direla esan du kontsumo bulegoak, aurretik azaldu moduan, enpresa horrek ez duelako eskumenik jardura hori egiteko.

Gas Garin enpresak esan duenez, ikuskatzeak eta azterketak egiteko bezeroaren etxera aurretik hitzordua egin ondoren joaten dira. Beraz, norbait ikuskatzea egitera doala esanez etxeren batera joanez gero, Gas Garinek bere bulegora deitzea gomendatu du informazioa baieztatzeak.



harpidedun izateak badu saria irabazleak

1 Sarasola Sagardotegia Bi laguntzako bazkaria

• Nieves Alargunsoro (Ibarra)

Eskaera egiteko, bi hilabete,



Asteasu • Tel.: 943-69 02 83

2 Txindokiko itzala Bi laguntzako bina sarrera

Larraitz • Abaltzisketa
Tel.: 943-10 43 67 / 628-94 72 53

• Jasone Armendariz (Altzo)
• Goizargi Iglesias (Ibarra)

Saridunek bina sarrera, hilabetez,



3 Eureka zientzia museoa Bi laguntzako bina sarrera

• Ametza Elola (Irura)
• Javier Ugalde (Tolosa)

Saridunek etxean jasoko dituzte sarrerak,



Mikeletegi pasealekua, 43-45
Tel.: 943-01 24 78
www.eurekamuseoa.es

harpidedun **TXOKOA hitza**

Berastegiarrak eta zizurkildarrak nor baino nor ariko dira bihar, herri kiroletan

Berastegiko futbol zelaian izango da bi herrien arteko desafioa, 12:00etan; ondoren bazkaria izango da

I. Terradillos Berastegi

Herri kirol proba berezia izango da Berastegiko futbol zelaian, bihar, 12:00etatik aurrera. Hain zuzen ere, Urepele gazte elkarteak antolatuta, Berastegi eta Zizurkil herriak nor baino nor ariko dira.

Gazte elkartetik azaldu duten moduan, «beroaldi» baten ondoren sortutako desafioa da bihar-koa. Hala, Berastegiko gazteak eta Zizurkilgo gazte talde bat lehiatuko dira hainbat kiroletan: 100 kiloko harriarekin, trontzan, lasto altxatzen, lokotx biltzen, ingudearekin, txingekin, zakua bizkarrean eramanez...

Urepeletik «festa giro polita» izango dela bihar herri kirol desafioaren aitzakian adierazi dute. Izan ere, desafioak berak herrian sortu duen ikusminak bultzatuta jende ugari bilduko dela futbol zelaina espero dute. Gainera, desafioaren ostean festak jarraitu egingo du, berastegiarrak eta zizurkildarrak mahairen bueltan elkartuko baitira bazkaltzeko. Eguraldiaren arabera, bazkaria herriko plazan edota elkartean egingo dute. Bazkalostean ere giro onean jarraitzeko aukera izango da, pintxo potea egingo baitute herriko hiru tabernatan. Antolatzaileek herriar guztiak animatu dituzte parte hartzera.

Urepele gazte elkarteak hamaita ekitaldi antolatzen ditu urte osoan zehar. Aurtien hamargarren urteurrena betetzen du elkarteak, eta hori dela eta, bertatik adierazi dutenez, urte «berezia» izatea nahi dute aurtengoa, «ekintza gehiagorekin».

Aiztondoren eta Zizurkilen arteko lehiarekin hasiko da etzi, Giza Proba Txapelketa

Lehen kanporaketa jokatu dute Urretxurekin batera, Aian; Berrobik ere parte hartuko du txapelketan

Iñigo Terradillos

Gipuzkoako Taldekako Giza Proba Txapelketa hasiko da etzi, igandean. Aian 18:00etan hasita jokatu dute lehen kanporaketan eskualdeko bi talde lehiatuko dira, Aiztondo eta Zizurkil. Eurenkin batera, Urretxu ariko da lehian.

Aiztondo taldeko Garikoitz Etxeberriak azaldu duenez, «ahal duen guztia» entrenatu du bere taldeak, txapelketan maila ona emateko. Aiztondo eta Urretxu dira txapelketako beterranoenak, eta hori abantaila izan daitekeela dio, baina, dena den, parte hartuko duten talde guztiak ondo prestatu direla eta «maila handia» izango dela nabarmendu du.

Zizurkilgo taldeko Andoni Usandizagak, berriz, txapelketari ekiteko «gogotsu» daudela esan du: «Gustura gaude taldearekin, eta esperantza badugu txapelketari begira». Martxoan hasi ziren entrenamenduekin, eta taldeak eta banaka egiten dituzte, erresistentzia eta indarra landuz. Usandizagak ere kalitate handiko txapelketa izango dela aurreikusio du.

Duela hiru urte, herriko jailetan Aiztondo taldea lanean ikusi ostean sortu zen Zizurkil taldea. «Guk ere giza proban aritzeko taldea osatu genuen, eta gero txapelketan parte hartzera animatu gintuzten», azaldu du Usandizagak. Pasa den urtean lehia uztar izan ziren, baina berriro osatu dute taldea aurtengoari begira.

Aian jokatu dute saioan B multzoko hiru taldeek 950 kilo-



Goian, Aiztondo taldea, eta, behean, Zizurkilgo kideak. HITZA

ko harria bultzatu beharko dute, bakarkako 20 minutuko saioan. Plaza gehien egiten dituenak baktuko ditu puntu gehien. Bigarren kanporaketa ekainaren 22an izango dute Urretxun, eta bi kanporaketetan puntu gehien batzen dituzten bi taldeak igaroko dira finalera. Hain zuzen ere, abuztuaren 4ean jokatu dute finala, Aiako probalekuan.

Taldeak 8 mutilez osatuak dira, eta gehienez 660 kilo pisatu behar dute. Pisu horretatik pasatzen diren taldeak gainzama jarri beharko dute, kilo bakoitzeko 2 kilo.

Aiztondok, Zizurkilek eta Urretxuk B multzoa osatzen dute. A

multzoan, berriz, Berrobik, Debak, Mendarok eta Oriok parte hartzen dute. Ekainaren 29an jokatu dute horiek lehen kanporaketa, eta uztailaren 13an bigarrena. Puntu gehien batzen dituzten bi taldeak igaroko dira multzo honetatik finalera. Beraz, Aiako finalean lau talde lehiatuko dira.

Eskualdeko hiru talde ariko dira Gipuzkoako Giza Proba Txapelketan. Pasa den urtean Berrobi izan zen garailea, eta aurtien ikusi beharko da txapela defendatzeko gai diren edota eskualdeko beste talderen batek hartzen dien aurre.

● tolosaldean@hitza.info



300 kiloko altza zuenean. A.I.

303 kiloko harriarekin ahalegina egingo du Inaxio Perurenak

Leitzako Amazabal pilotalekuan izango da, etzi, 13:00etan; «txakalaldia» igaro ostean, «gogotsu» dago

I. Terradillos Leitzza

Inaxio Perurena harri-jasotzaile leitzarrak marka saiakera berria egingo du etzi, Leitzako Amazabal pilotalekuan, 13:00etan. 303 kiloko harria altxatzen saiatuko da.

Perurenak azaldu duenez, gorabehera ugari izan da otsailaz geroztik, «txakalaldi» modukoa izan du, baina buelta ematea lortu du, eta «gogotsu» dago erronka berriaren aurrean. Gaur eta bihar «deskantsu aktiboa» egiteko baliatuko du, eta igandeko prest egotea espero du 303koa altxatzeko. Urduritasuna izan ohi da bere punturik ahulena, baina horri aurre egiten saiatuko dela, eta «sinetsita» dagoela adierazi du.

Bestalde, etziko jaialdian Inaxio Perurenaren marka ahaleginaz gain, Jon Rekondo eta Jon Irazu aizkolarien norgehiagoka ere izango da ikusgai, eta Joseba Ostoloza eta Isaak Martinez harri-jasotzaileen saioak izango dira.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarra: 687 410 118. ibarra@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak: **BERTAKO** HEDABIDEAK **Galtzaurdi euskara taldea** eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile **Hitza-k Bai Euskarari**

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduña, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrau, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agurrak



Zorionak!
Manex Begiristain. Ekainaren 10ean 6 urte. Urte askotarako txapeldun! Txokolatezko muxuak etxekoan partetik.



Ongi etorri Ekain!
Zorionak Rebeka eta losu!

Irudia Ibarra



ZUHAITZAK IZENDATUZ

Ekainaren hasieran Aste Berdea ospatzen da, eta Ibarako Udalak ere Nazioarteko Ingurumen Eguna ospatu du. 2013. urtean ere ekimenarekin bat egiteko helburuarekin, Uzturpe Ikastolako 5. mailako ikasleek bi taldetan banatuta, herriko hainbat zuhaitz identifikatu zituzten udalaren laguntzarekin. Bestetik, Azkue auzoan eraikitako auzo konposta gunea martxan jarri dadin, Azkue auzoko bizilagunek konposta egiten ikasteko ikastaroa egin dute. HITZA

Agenda

GAUR

DEIALDIAK

■ **Amasa-Villabona.** Errebote Plazan, 17:00etatik 20:30era, bigarren eskuko azoka izango da. Materiala salgai jartzeko interesa izanez gero, 689 749 439 zenbakira hots egin behar da.

■ **Gaztelu.** Ekainaren 21ean, Piritx, Porrotx eta Marimotots pailazoan emanaldia izango da Gazteluko jolastokiaren alde. Sarrerak salgai 6 euroren truke: Tolosako Orbelan, Ibarako Sendi Ekintzan, Alegiako Route 33n eta Gazteluko udaletxean.

■ **Ibarra.** Subegi elkartearen, 20:00etan, Ziribulo Sound kontzertua izango da, doan.

■ **Irura.** Gazte Alaia elkartearen sagardo kata izango da, hilaren 13an. Jai batzordeak antolatuta Guillermo Castañosen saioa 19:00etan izango da. Aldez aurretik izena eman behar da eta azken eguna da gaurkoa. Liburutegian eman behar da.

■ **Leitza.** Aurrerako elkartearen Jakoba Errekondoren hitzaldia izango da, 20:00etan. Sagardoaren historiari ariko da.

■ **Leitza.** Leitzaiko kiroldegian, Entrenamendu Mentalaren saioa izango da, 20:00etan. Euskaraz izango da.

■ **Lizartza.** Lizartza Zero Zabor taldeak antolatuta Mundumob egitasmoa izango da. 16:00etan hasiko dira dantzan.

■ **Tolosa.** Arkaute parkean, 17:30ean, konpostajearen festa izango da. Umeentzako jolasak eta askaria, *lunch*-a eta giro ederra izango dira.

■ **Tolosa.** 200 urte, *bi Euskadi* hitzaldia izango da udaletxean, 20:00etan, Andia Elkartearen eskutik.

■ **Tolosa.** Orbela tabernan, Ludgero Rosas, Juanjo Falcon eta Michel Longaronen kontzertua izango da, 23:30etik aurrera.

Farmaziak

Mauka berria

'Sortuko dira besteak' kontzertu emanaldi zoragarria, Lizarribarren omenez

A.M kultur promotora
Hondarribia kalea, 27, 2
Donostia 20006 GIPIJUKOA
Tel.: 619-42 11 53

Prezioa
15€

berria taldea

GAURKO ESKAINTZA

www.mauka.eu

Plaza Etxeberri

zerbitzari bat behar dugu

dez gaitzazu 616 81 69 69 telefonoa
www.plazamexherri.com

GAUR

■ **Tolosa.** Egunekoa: Morant, R. Zabalarreta lorategia, 1. 943 67 38 49. Gauekoa: Olarreaga, M. Martin J. Iraola etorbidea, 10. 943 6724 38.

■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. Telefonoa: 112.

■ **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Aurten noraino?

EGIZU DEKLARAZIOA EUSKARAZ!

19-90

"KONBINA-TU"
Aukeratu 2 plater eta edaria 12,90 eurotan (astelehenetik - ostegunera)

"Fast Good Food"
Betiko kutxiak, gure karta berrian

Euskal Herria plaza, 5 • TOLOSA • Tel.: 943 119 017